



AURRETIAZKO KONTSULTA, EUSKARA, KULTURA ETA KIROL DIPUTATUAREN FORU AGINDUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA; ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ENTITATEEI ZUZENDUTAKO ESKOLA KIROLEKO PROGRAMAREN ONARPENERAKO, ETA BERAU 2018-2019 KANPAINA BITARTEAN ARAUTUKO DUEN ARAUDIARI BURUZKOA.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez kontsulta bat planteatzen da, non herritarren eta xedapenak ukituta gerta daitezkeen elkarte esanguratsuenen iritzia jasoko den, xedapenaren asmoa honako hau izanik: Arabako lurralde historikoko irabazteko xederik gabeko entitateei begira, 2018-2019 kanpainarako eskola kirolerako arau-esparru bat ezartzea.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2018ko maiatzaren 23ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	2018-2019 rako eskola kirolarren programa eta Arabako Lurralde Historikoan eskola kirola arautzen duten araudi guztiak onartzea.
ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Euskadiko Kirolaren Legean ezarritakoaren arabera (14/1998 Legea, ekainaren 11koa) eta 125/2008 Dekretua uztailaren 1ekoan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren ardura da Arabako Lurraldeko eskola kirolaren programa prestatzea, onartzea eta betearaztea. Kirol zerbitzuak antolatzen du eskola kirolaren programa, dagokion araudi arautzailearekin.
HELBURUAK	Agindu Foralaren proiektuaren helburua 2018-2019 kanpainarako Arabako Lurralde Historikoko xederik gabeko entitateen bitartez eskola kirolaren programarentzat araudia ezartzea da.
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	Ez daude ordezko konponbiderik.